

Nafarroako Esaera Zaharrak. Eratsun.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Eratsun.

- 1457 *Ama Birjiña aguztuko, urtean bi aldiz balitzeke! Ama Birjiña urriko, iñoiz ez al duk etorriko!*
Urriaren 8'an Ama Birjiñaren jaiotza (Urria = Irailla, Buruila zenbait erritan).
- 1458 *Ama Birjiña martxoko, beiek geiñen aseko.*
Geiñen = Geiñean.
- 1459 *Amorrai aundik, bokadu aundia.*
- 1460 *A ze loien nasketa daukien!*
- 1461 *Aragi zarra, zalle.*
Gaizto zarra beste ainbeste, ontzeko zail.
- 1462 *Arriakin pitxara yo, edo pitxarakin arria, berdin pitxara autsi.*
- 1463 *Arrapatu ta marrau!*
Marrau = bereala iretsi, klikatu.
- 1464 *A ze ustekabea eman dioten au!*
Uste etzezakena etorri zaio.
- 1465 *Bakoitzek yakiten du bere etxeko berri.*
- 1466 *Bat eman baño obe da eun agindu.*
Agintzea erraz da, baño ematea...
- 1467 *Bear ez du(t)enak izaten du(t)e majiñe 'atez.*
Majiñe aldiz, askotan.
- 1468 *Bei bat obe umeakin, ogei dozenako zerri bat baño.*
- 1469 *Bei txikie beti bigatx.*
Bigatx = bigantxa, miga, bei gaztea.
- 1470 *Bela (argia) piztu ta ere, etzuen oberik billatuko.*
- 1471 *Bertako arbolak lau, ta urrutikoak zortzi.*
- 1472 *Besteain (besteen) etxeko lanak, beti egiñek.*

- 1473 *Besten zorri(a)k ateratzen ditu, baño bererik ez.*
Besten utsak ikusten, bereak ez.
- 1474 *Beti pantasiz nai, ta beti gaizki.*
- 1475 *Denbora yoan ta denbora etorri; orain berriz kontu ori.*
Azturik zegon gauza berriz aipatu.
- 1476 *Eginbearra, buruz gañetik ateratzen da.*
- 1477 *Esku batekin bestea bustitzen da, eta biek in aurpegia.*
Edozein lan edo egitekotan, baten laguntza baño obe biena edo geiagorena.
Oihenart-ek: "Esku batak dikuzke bertzea, biek begitartea" (157).
- 1478 *Esperantza aña beldurra.*
- 1479 *Etorri alean gezurre.*
Beti gezurretan dabillenez.
- 1480 *Ez auts eta ez ikatz, idurie.*
Ez-baian dabillenez; iduria = ikatz xea (cisco).
- 1481 *Eztu burutik maingurik bere aldeko.*
Berak nai duenerako buru ona du.
- 1482 *Geina (geiena) egiten duenak ere, il arte bizi.*
Dirurik geien egiten duenak ere galdu bear.
- 1483 *Gogozko lekuan aldap(ar)ik ez.*
Olatsu esaten da beste lekutan ere.
- 1484 *Goizean purru-salda, eguerdian aza: aixe kabituko du
ipurdian galtza.*
- 1485 *Goiz gorri, arrats euri: arrats gorri, goiz aize-egualdi.*
- 1486 *Gosea daukenak, begie argi.*
- 1487 *Gure muttikoa, axola guttikoa.*
- 1488 *Il ta gero, olio-salda.*
Gauza bere garaian egin ez denean, gero saiatzea alperrik da.
- 1489 *Iñork ez du ixila(ra)ziko karaka ori.*
Alako itzontzia da.

- 1490 *Yokalarien boltsak bi zulo.*
- 1491 *Irabazi duena armonin, galdu duena agonin: nik ere, yoan ez banintz, oben nin (nian).*
Jokuaren ondorioak: galdu ta gero damutu, baño beranduegi.
- 1492 *Irri ta ne(g)arra, mundu guzin bearra.*
- 1493 *Izti aundia du mingaiñean, orrekin ez fiatu.*
- 1494 *Kattalin, pottolin: ire amak aurra egin din; aur-zapillik (zapirik) ez, ta kattularru(a)n bildu din.*
- 1495 *Katurik nai ez du(t)enen etxean, sagu-arratoiak nagusi.*
- 1496 *Lurrak ekarri, lurrak eraman.*
Alperrik galtzen diren gauzez.
- 1497 *Martin, torttin: gari-biri, ipurdi latz.*
Jostaketako itzak.
- 1498 *Nolako bele(a)k, alako bele-kume(a)k.*
- 1499 *Nolako etxeko andre, alako etxealde.*
- 1500 *Ongi egin, ta gaizki artu.*
Esker onik ez erakutsi.
- 1501 *Orrek lotsak galdu ttu (ditu).*
Bere izen onaz ere axolarik ez du.
- 1502 *Sagar gorri(a)k, barrena ustel.*
Itxura ona bai, baño oitura txarrak.
- 1503 *Santa Luzi-eguna, argitu orduko illuna.*
Santa Luzia abenduaren 13'an.
- 1504 *Txakur txiki(a)k, saunka aundia.*
- 1505 *Txiki(a)k txikitxo, ta aundi(a)k aunditxo.*
Ezin izan, nai litzaken neurriko.
- 1506 *Turmoi-urtea, arto-urtea.*
- 1507 *Urrutiko eltzea betea: alla(g)atu orduko utse.*

Urrutiko kontuetan zenbat gezur!

- 1508** *Zein agiñetan den miña, an da mingaña.*
Nor bere kezka edo minez mintzaten.
- 1509** *Zeken utse.*
- 1510** *Zenbat Juan den, ainbeste Mari da.*
- 1511** *Zorra duenak, burua makur.*
Lotsaren lotsaz.
- 1512** *Zurren sakelak, bi zulo.*